

AITXIKI (791m)



Denborarekin hainbat dira mendi horri jarritako izenak, Astxiki, Atxiki, Alluitz txiki... Alboko mendiekin konparatuz garaiera xumea dauka, hori dela eta gure uste apalean arbasoek Haitz-txiki izena jarri zioten.

Anboto mendilerroa mendizalearentzat oso berezia da, baita eskalatzailleentzat ere, izan ere, hagin zorrotzen bezala lurretik gorantz irteten diren kareharrizko mendi ikusgarriek osatzen dute mendilerroa. Bizkaiko eta Euskal Herriko zonalderik ikusgarrienetakoa bihurtuz. Paisaia honek baldintza ezin hobekak bihurtzen ditu eskalada praktikatzeko, hori dela eta, leku guztietako eskalatzailleak hurbiltzen dira bertako horma amaigabeak eskalatzera.

Aurreko mendean Atxarteko harrobiak kudeatzen zituzten agintariak gutxigatik inguruan sarraski ikaragarria egiteko zorian egon ziren, parean dagoen Untzillaitz mendiko oinarria ustiatu eta gero gorantz joateko asmoa izan zuten mendia txikitu arte. Zorionez herritar batzuk borroka gogor bat egin eta gero sarraskia gelditu zuten.


IBILALDIAREN XEHETASUNAK:

Atxarteko harrobitik Artolako lepora joan beharko gara. Bertan Aitxira igotzeko azken metroak harrizta batetik egin beharko dugu. Ibilbidea laburregia iruditzen zaionari tontorretik Artolako lepora jaistean igo dugun lekutik Atxartera jaitsi beharrean Sagasta auzora jaitsi daiteke eta bertatik Atxartera joan. Beheko aldean ibilbide orria daukazue.

INFORMAZIO TEKNIKOAK:

- Luzeera: 8,2 km.
- Iraupena: 4,5 ordu.
- Desnibel positiboa: 629 m.
- Zailtasun teknikoa: erdikoa.
- Zailtasun fisikoa: erdikoa.

IBILBIDEAREN IRUDIAK:



IBILBIDE ORRIA

Irteera: Aitxiki.	Mendilerroa: Anboto	Data:
--------------------------	----------------------------	--------------

	Lekua	Norabidea	Deskribapena
1	Atxarte	N160E	Atxarteko harrobiko eraikina eskumako aldean utziz gorantz egingo dugu.
2	Bidegurutzea	N150E	Gorantz egin eta gutxira bidegurutze batera helduko gara, bertan harrizko zubi bat dago. Seinale bertikala ikusiko dugu, errepide nagusitik zuzen "Txakurzulo" jartzen duen norabidea hartuz.
3	Parking txikia	N080E	Parking txiki batera heldu baino lehen ezkerreko bidezidorra hartuko dugu Guenzelai jartzen duen norabidean. Hesia zeharkatuko dugu eta marka horiak eta zuriak jarraituko ditugu.
4	Bidegurutzea	N160E	Bidezidorretik goazela hesi bat zeharkatu beharko dugu, hortik metro gutxira beheko aldetik datorren pista batekin topatuko gara. Ezkerreko bidea gorantz hartuko dugu.
5	Desbideratu	N120E	Aurreko bidegurutzetik metro eskas batzuetara itoak ikusiko ditugu. Marka horiak eta zuriak ez ditugu jarraituko eta ezkerreko bidea hartuko dugu.
6	Hesia	N110E	Pixka bat aurrerago bide erdian hesi batekin topatuko gara eta gainetik pasatuko dugu.
7	Bidegurutzea	N040E	Hesia zeharkatu eta metro gutxitara PR bidearekin topatuko gara. Berriz ere markak jarraituz ezkerre eta gorantz doan bidea hartuko dugu.
8	Artolako lepoa	N340E	Aldapa gora amaitzean kable elektriko azpian seinale bertikala ikusiko dugu. Aitxiki jartzen duen norabide hartuz harrizta batetik gora tontorrera helduko gara.
9	Tontorra	N090	Artolako lepora igo dugun lekutik jaitsiko gara. Ibilbidea laburregia iruditu bazaizue jarraian ibilbidea luzatzeko zehaztasunak emango dizkizuet.
10	Artolako lepoa	N060	Seinale bertikala dagoen lepora jaitsiko gara. Axpe eta Arrazola jartzen duen norabidea hartuko dugu. Hemen kontuz, marka zuriak eta horiak jarraitu beharko ditugu. Hasieran kable elektrikoekin paralelo joango gara eta metro gutxi batzuk beherago eskumarantz diagonal egiten hasiko gara. Iturri batekin topo egiten badugu

			norabidea ona denaren seinalea izango da. Diagonalean bidezidorra aurkitu beharko dugu.
11	Bidegurutzea	N100E	Larre zabala amaitzean pinudian sartu eta metro eskasetara bidegurutzera helduko gara, zuzen hartuko dugu berriz ere marka zuriak eta horiak jarraituz.
12	Bidegurutzea	N010E	Harrizko pista batekin topo egingo dugu, markak jarraituz ezkerreko bidea hartuko dugu.
13	Bidegurutzea	N070E	Harrizko pistatik desbideratu barik zuzen beherantz jarraituko dugu.
14	Bidegurutze anitza	N310E	Seinale bertikalean marka horiak eta zuriak utziko ditugu eta hortik aurrera gorria eta zuriak jarraituko ditugu. Atxarte jartzen duen norabidean.
15	Sagasta auzoa	N350E	Iturrian zuzen marka gorriak eta zuriak jarraituz.
16	Bidegurutzea	N270E	Aurreko puntutik gutxira baserri handi batera helduko gara, baserria inguratuz ezkerreko bidea hartuko dugu.
17	Bidegurutzea	N360E	Asfaltotik zuzen marka gorriak eta zuriak jarraituz.
18	Desbideratu	N340E	Asfaltotik goazela pinudi batean ezkerre harrizko pista hartuko dugu. Jarraian berriz ere ezkerre hartzeko. Markak jarraitu.
19	Atxarte		Marka zuriak eta gorriak jarraituz hasierako puntura helduko gara.